



SOINUENEA HERRI MUSIKA EZAGUTZERA EMATEN DARRAI

Martxoan etxeratze agindua izan zenetik Soinueneak baldintza berrietara egokituta lanean jarraitu du.

Inauteriak pasa berriak ziren eta Soinuenean programatuta genituen lan guztiekin buru-belarri ari ginen: ikaste-txeetako bisitak, Oiartzungo Herri Musika Eskola, Herri Musika Jardunaldiak... Dena zen normala, baita prentsan entzuten genituen berriak ere: okzidenten denarekin keza eta handik kanpora bizitzeko ere nahiko lan. Berri onak ere bazirela? Bai baldinbaitere. Dena den, pixkanaka orduan eta gertuago sumatzen genuen Txinan hildako ugari sortu zituen gai-xotasun bat. Eta iritsi zen.

Martxoaren erdialderako antolatuta genituen Herri Musika Jardunaldiak eta entzutera etortzeko jende ugari izena emana zuen. Justu, badaezpada etxean geratzeko esan ziguten asteburu hartan ospatuko ziren. Gure berri jasotzen duten guztiei helarazi genien azken momentuan atzeratzea behartuta geundela esaten zuen mezua. Horrela hasi zen Soinuenearentzat konfinamendua.

Horrekin batera, Soinuenean udaberriari ugariak izaten diren ikastetxeetako haurren joan-etorriak eten ziren.

Etxeratze agindua etor zitekeela jakinda, etxetik lan egiteko aukera prestatu genuen eta horrela lortu dugu museoko beste lanekin jarraitzea. Hala, katalogazioan egundalako ahalegina egin da, batez ere soinu-tresnen atalean. Batetik, soinu-tresnen argazkiak hobetzen jarraitu dugu argazki estudioa langileetako baten etxean muntatu eta soinu-tresnak hara eramanda. Bestetik, ahal izan den kasuetan, bildumako soinu-tresnekin grabazioak egin dira. Horrek, soinu-tresnaren errekupeazio eta doitze lan handia eskatu du, bestela, erakusteko balio duen soinu-tresnak ez baitu zertan jotzeko moduan egon. Ta katalogazio lana osatzeko, orraza pasatzen ere aritu gara, tarteka agertzen

diren akats txiki horiek zuzentzen eta informazioa osatzen.

Aldi berean Oiartzungo Herri Musika Eskolak jarraitzeko modua bilatu eta harrapatu du. Aurrez-aurreko klaseak inondik inora berdintzea lortu gabe, ahalegin handia egin dute irakasle eta ikasleek bideokonferentzia bitartez ikasten jarraitzeko. Gaur egungo bitartekoek urrutikoaren arteko komunikazioa asko laguntzen badute ere, oraindik ez da posible bi etxe ezberdinetan dauden musikariek elkarrekin musika egitea, bai ordea batek bestearena entzun eta ondoren zuzendu behar lukeena adieraztea.

Konfinamenduak jendartean eduki digitalak bilatzeko beharra sortu zuen eta hori kontuan izanik Soinuenean zer egin genezakeen pentsatu ondoren, kontzertuen grabazioak partekatzea publikoaren gustukoa izan zitekeela ikusi genuen. Gauza bat da pentsatzea, bestea egitea. Hasi ginen eta ederki kostata bada ere, iazko irailean Albalan *Gremio de Mareantes* eta *Juan Mari Beltran laukoteak* eman zuten kontzertua txukun jarri eta Youtube plataforman partekatu genuen. Kontzertu gehiago partekatzeko lanean ari gara, eta pixkanaka denak herri musikan interesa dutenek entzuteko moduan jartzera iritsiko gara.

Euskal herritarrek etxean pasa genituen egun, aste, hilabete horietan nabarmena izan da sareen saretik Soinuenean izan den bisiten gorakada. Nabarmenena apirilekoa izan da, iazko apirilarekin alderatuta bisita kopurua hirukoiztu egin baita.

Zorionez, etxeratze agindua bukatu zen eta ekainetik Soinuenean normaltasunez gatz lanera. Zenbait egokitzen egin behar izan ditugu. Gure bizitzan ohiko bihurtu diren musukoak, eskuak garbitzeko gel gisakoak eta per-

tsonen arteko tartekak zaindu beharra gure museoan ere ohikoak dira. Bisita gidatuak aldatzera behartuta egon gara eta lehen hogeita lau pertsona sartzen ziren lekuan hamar pertsonako muga jarri dugu. Gainera, pertsona horien arteko tartea ahal den neurrian bermatzeko aulkiak erabiltzen ditugu.

Festarik ez da izan, ez azkenaldian ulertzen genituen moduan behintzat, baina egun seinatueta musika printzak izan dira, Ergoien kaleetan soinu-txikia eta dultzaina entzun ziren esate baterako, edo Xanixtebanetan ere kalejira ezberdinetan parte hartu dute Oiartzungo Herri Musika Eskolako ikasleek herriko beste taldeetan joaz. Kalejira arraroak izan dira. Batetik egun berezia zela adierazi nahi zen, baina bestetik ez zen jendea pilatzerik nahi.

Konfinamendu garaian ezinezkoak izan ziren kontzertuak ere berreskuratu ditugu. Uztailaren 30ean organo eta herri musika eskolan erakusten diren soinu-tresnekin kontzertu berezia izan zen Oiartzungo Done Eztebe elizan, eta hurrengo egunean Harri Beltzak urtero San Ignazio egunerako antolatzen duen kontzertuan ere lagundu genuen kanpai joaldiak eta dultzaina joaldiak elkartzu.

Kontzertuak berreskuratzearekin azkar jardunaldiez gogoratu ginen eta haiek ere laster egingo genituela pentsatu genuen, baina udaran gaixotasunak izan duen eboluzioarekin aurrera eta atzera ibili gara. Azkenean, momentuz datarik gabe utzi ditugu.

Uda horrela joan da eta irailak ikasurte berria ekarri du berekin.

Soinueneatik herri musika ezagutzera emateko ahaleginarekin jarraituko dugu. Baldintzatuta bada ere, kontzertu eta ekitaldiak antolatzen, eskolak ematen eta era berriak bilatzen.

OHME IKASTURTE HASIERA

Iazko ikasturtea Oiartzungo Herri Musika Eskolak urteari bukaera ematen dion kontzertu eta bazkaririk gabe bukatu zuen. Hala ere, ikasleek egindako lana, neurri batean behintzat, erakusteko aukera izan zuten grabatu zituzten bideoen bidez.

Ikasturte berrian alboka, biolina, dultzaina, herri perkusioa, txalaparta, txistua, xirolarrua edota musika lengoia ikasteko aukera izango da Madalensoro frontoiko geletan.

Aurreko urteetan bezala, soinu-tresna hauek ikasteko aukera adin guztietako ikasleei zabaldua dago: lehen hezkuntzan dabilen haurretatik abiatu eta nahikoa lan eginda jubilatuta dauden helduetara.

Irakasleek ikasleekin berriro lan egiteko aukera izango dute. Hasera batean aurrez-aurreko klaseak ematea erabaki da. Inork ez du zalantzan jartzen musika ikasteko aukera onena aurrez-aurreko klasea denik. Dena den, ikasturtean zehar gerta daitezkeen egoera aldaketek hala behartuta, eta badaezpada, hiru egoera hipotetikotan nola jokatu den azaltzen duen dokumentu bat prestatu da. Dokumentu hori web orrian jarri dugu interesa duenak ikus dezan (COVID-19 protokoloa).

Gu badaezpada ahalik eta dieta osasuntsuena egiten ari gara gorputza edozein gaixotasuni aurre egiteko prest izateko.

GALIZIAN ESKER ONEZ

Abuztuaren 28 eta 29an Real Banda de Gaitas da Deputación de Ourense aspaldiko urteetan antolatzen duen Xuntanza Internacional de Gaiteiros ospatu zen Monterrein (Ourense). Hogeita hamabosgarren aldiz ospatu da aurten mundu osoko xirolarru jole eta zaleak elkartzen dituen topaketa hau. Neurri batean urte honetako egoera bereziak hala behartuta, aurten penintsulako xirolarru joleengan jarri dute antolatzaileek fokua.

Ekitaldien egitarauan erdi aroko eran jo zuten tronpeta joleak, Tatiana Kostomárova, Banda de Gaitas Nova Era de Verín, Escola Provincial de Gaitas-eko zanfona joleak, Xuacu Amieva, Agrupación Musical do Concello de Riós, Flores López, Cantareiras da Real Banda, Abílio Topa, Manuel Santín gaiteiro de Cervantes, Gaiteiros de Flariz, Germán Díaz eta Real Banda de Gaitas da Deputación de Ourense zeuden Juan Mari Beltran eta Errege Beldarekin batera.

Musika emanaldiak abuztuaren 28an hasi ziren Juan Mari Beltranek eta Errege Beldak elkarrekin eman zuten kontzertuarekin. Hurrengo egunean aritu ziren gainontzeko musikariak eta bertan antolatzaileek Juan Mari Beltrani herri musikaren inguruan egin duen lan zabala eskertuz probintziaren *Medalla de Ouro* eman zioten.



Monterreiko alkatea den José Luís Suárez Martínez, Juan Mari Beltran eta Xose Lois Foxo. (Arg. SNN)

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 88

Antolatutako taldeak: 6

Bisitari kopurua irailera arte: **64.584**

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 20.595

Soinuenea - Herri Musikaren Txokoa



Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.eus

www.soinuenea.eus



OIARTZUNGO
UDALA